

## Lan-saioetarako materiala

Documentación para las sesiones



## Lurralde-antolamendua eta ingurumena

Ordenación territorial y medio ambiente

## Lurralde-antolamendua eta ingurumena\_aurre Diagnostikoa

	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
hirigintza	<ul style="list-style-type: none"> <li>→ <b>Herrigunea handitu egin da:</b> lehen erabilerako eraikuntza asko egin da (% 23,9ko hazkundea, 2833 etxetik 3511ra) eta industrialde ziren gune batzuetan etxebizitzak eraiki dira (Alai, Ondartxo, Ardantzabide, Bonbilloaldea...). Beste batzuk bidean (Ortiz...).</li> <li>→ <b>Hiri-lurzoru gehien duen herria da</b> (bizitegiatarako % 25,1), Zarautzekin batera.</li> <li>→ <b>Enpresak herrigunetik kanpora</b> atera dira: Estazio/Basusta, Jose Mari Korta industrialdera eta Xey poligono aldera.</li> <li>→ <b>Kanpina egin ahal izateko plan berezi</b> bat onartua zen, eta kanpina egin da.</li> <li>→ <b>Topografia malkartsua</b> du Zumaiak, eta gehienez ere, eremuaren % <b>40</b> bidera daiteke <b>hiri-erabilerarako</b>.</li> <li>→ Zumaia da eskualdean <b>babes bereziko udal-azalera handiena</b> duena (% <b>34,2</b>).</li> <li>→ Arau Subsidiarioetan <b>Lurralde-antolamenduko irizpide eta helburuak landu</b> dira.</li> <li>→ Hirigintza <b>iraunkortasunean</b> oinarritzen da; <b>lurzorua ondare urritzat</b> jotzen da eta <b>behar dena soilik planifikatzen da</b>; herrigune berriak horretarako izendatutako eremuen karga-ahalmenaren arabera banatzen dira.</li> <li>→ <b>Saihesbide berriaren ibilbidea</b> definitu da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Departamentuarekin elkarlanean.</li> <li>→ <b>Industrialdeak berriz aztertu</b> dira.</li> <li>→ <b>Oinezkoentzako ibilbide-sarea definitu da</b>.</li> <li>→ <b>Bizitegiko lurzoru urbanizagarrian antolamendu-eremu zabalak</b> planteatzen dira.</li> <li>→ Oikia auzoa indartzen joan da, <b>babes ofizialeko etxebizitzetarako</b>.</li> <li>→ <b>Lokal</b> komertzialak <b>etxebizitza</b> bihurtzeko ordenantza indarrean da.</li> <li>→ Etxebizitzen <b>irisgarritasuna</b> sustatzeko ordenantza indarrean da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>→ Indarrean dauden <b>Hirigintzako Arau Subsidiarioak 2004koak</b> dira, eta <b>eguneratzeko premia</b> dute.</li> <li>→ <b>Hiri-lurzoru gehien duen herria da eskualdean</b>, eta beraz, lurralde naturala gehiago <b>artifizializatu</b> da.</li> <li>→ <b>Topografia malkartsua</b> du Zumaiak, eta gehienez ere, eremuaren % <b>40a</b> bidera daiteke hiri-erabilerarako.</li> <li>→ <b>Etxebizitza kopurua 10 urtean % 23,9 hazi</b> da, eta erritmo horri ezin izango zaio luzaroan eutsi.</li> <li>→ 2010eko etxebizitza premien azterketaren arabera, <b>urteko eskaera 152 etxebizitzakoa</b> zen, baina krisiak eraginda, ezin izan zaio behar mota guztiei erantzunik eman (babes ofizialekoak, tasatuak, alokairukoak...).</li> <li>→ <b>Etxebizitza publikoekin zer egingo den erabaki gabe</b> dago, zenbat eta noiz eraiki zehaztu gabe dago.</li> <li>→ 2008-2009an <b>etxebizitzen % 11 hutsik</b> zegoen. 2001etik 2010era hutsik dauden etxeen kopurua % 10,8 hazi zen (528tik 696ra).</li> <li>→ <b>Alde Zaharra</b> nola garatuko den definitu gabe dago (merkataritza, oinezkoentzako eremu egin, tabernak, eta abar).</li> <li>→ <b>Torreaga, Estazioa auzoa, Puntanoeta guneen inguruko hausnarketa</b> egiteke dago, eta irtenbideak bilatu behar dira.</li> <li>→ <b>San Jose auzoko Plan Berezia</b> garatu gabe dago.</li> <li>→ <b>Industrialdeetako</b> eta beste sektoreetako <b>jardueren kontrola hobetu</b> beharrekoa da (jarduera lizentziak eskatzea, adibidez).</li> </ul>

## Lurralde-antolamendua eta ingurumena\_aurre Diagnostikoa

	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
mugikortasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>→ <b>Autobus eta tren zerbitzu onak</b> ditu Zumaiak, eta azken urteotan hobetu egin dira.</li> <li>→ <b>Oinezkoek zenbait eremu bereganatu</b> dituzte (Erribera kalea, Beheko plaza, Victoriano Arrate kalea, Amaiako plaza – Ondartxo...). Oro har, herri eroso da oinez ibiltzeko.</li> <li>→ Hainbat lan egin dira <b>oztopo arkitektonikoak ezabatzeko</b> (igogailuak, arrapalak...), Jadarren, Arroa kalean, Alondegian, Ardantzabiden...</li> <li>→ <b>Bidegorri-sare</b> handi samarra eraiki da (herritik Narrondora, eta herrigunean).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>→ <b>Autoa</b> da mugikortasunerako ibilgailu nagusia. <b>Auto-kopurua</b>, eta ondorioz, <b>erabilera, asko areagotu</b> da azken urteotan.</li> <li>→ Autoen <b>abiadura murrizteko neurriak</b> behar dira: errotondak, bihurguneak, gune lasaiak...</li> <li>→ <b>Aparkatzeko arazoak</b> daude, eta aparkatzea arauturik ez dagoenez (OTA eta antzekoak), aste bukaeretan eta udan arazo ugari sortzen ditu, nagusiki trafiko dentsitate handia eta aparkatzeko toki falta.</li> <li>→ <b>Herrigunetik kanpo dauden aparkalekuek erabilera txikia</b> dute, eta <b>herrigunerako bidea errazteko neurririk ez</b> dute.</li> <li>→ Garraio publikoa sustatzeko <b>“Auzobusa”</b> bezalako ekimenak martxan jarri diren arren, ez zuten proba pilotua gainditu, eta <b>bertan behera</b> utzi zen.</li> <li>→ <b>Mugi bizikleta alokairu-zerbitzua</b> ezartzeko saiakera egin zen arren, erabiltzaile batzuen erabilera okerragatik <b>bertan behera</b> utzi zen.</li> <li>→ <b>Oikiara eta Maria eta Jose ikastetxera ez da bidegorririk</b> iristen.</li> <li>→ <b>Mugikortasunaren arloan ez da plan berezirik egin</b> azken urteetan (indarrean dagoena 2005-2006an idatzia).</li> <li>→ <b>Irisgarritasun Plana</b> 2008an idatzi zen, eta <b>eguneratzeko premia</b> du.</li> <li>→ Hainbat eremutan <b>oztopo arkitektonikoak eta irisgarritasuna hobetzeko</b>-neurriak hartzeko premia dago. Adineko pertsonentzat <b>aldapa handiko eremuak</b> daude.</li> </ul>

## Lurralde-antolamendua eta ingurumena\_aurrediagnostikoa

	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
ingurumena	<ul style="list-style-type: none"> <li>→ Oso <b>inguru berezi eta aberatsa</b> du Zumaiak, eta azken urteotan, horiek <b>balioan jartzeko eta babesteko neurri zehatzak</b> eta zorrotzak hartu dira (Harraldean edo kostaldean, Artadian, Santiagon, Talaimendin, Urolaren itsasadarrean...)</li> <li>→ <b>Santiagoko hondartzak</b> behar duen <b>berrantolaketarako baimena</b> lortu berri du Udalak. Padurak eta dunak berreskuratzea, eta hondartzako zerbitzuak hobetzea aurreikusten da.</li> <li>→ <b>Ondare geologiko aberatsa</b> du Zumaiak: Geoparkea, Flyscha... Lau urtean behin horien <b>auditoria</b> egiten da.</li> <li>→ Udalak eta Geoparkeak <b>naturaguneen kontserbaziorako lan</b> egin dute. Udalak Urolako <b>itsasadarraren Plan Berezia</b> bultzatu du.</li> <li>→ Arau Ordezkatzaileek <b>naturaguneak babestu</b> dituzte. Naturagune interesgarrienek babes ofiziala dute: <b>Biotopoa, Urolako itsas adarra eta Kontserbazio Bereziko Eremua</b> (KBE).</li> <li>→ Udalak <b>ingurumenaren kontserbazioa eta berreskuratzea definitzeko ekintza-plana</b> osatzeko azterketa bultzatu du.</li> <li>→ <b>Ikastetxeekin Agenda21aren</b> baitan hainbat ekintza lantzen dira.</li> <li>→ <b>Algorriko Interpretazio Zentroak 10 urte</b> bete ditu. <b>Erreferentzialtasuna</b> bilatu eta GFAk aurreproiektu museografikoa egin du.</li> <li>→ 2010ean <b>hondartzen ISO14001 ziurtagiria</b> lortu zen.</li> <li>→ <b>Etxeko animalien edukitzeko eta babesteko udal-ordenantza</b> egin da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>→ <b>Hondartzaren kudeaketarako ez dago ordenantzarik.</b></li> <li>→ <b>Santiagoko hondartza</b> berrantolatzeko <b>lanak ezin izan dira egin</b>, baimena ez delako orain arte iritsi.</li> <li>→ <b>Baratze publikoen araudirik ez dago.</b></li> <li>→ <b>Ez dago ingurunearen kudeaketa-plan integralik.</b></li> <li>→ <b>Ingurumen-heziketa eta herriko baliabide naturalez ezagutza txikia</b> da, eta <b>ez dago trebakuntza-planik</b> arlo horretan, <b>ez partaidetza sustatzeko programarik.</b></li> <li>→ <b>Nabigazio eta ibilgailuei loturiko jarduerak antolatu gabe</b> daude.</li> <li>→ <b>Biotopoko erabilera publikoaren eta baserriko erabileren artean</b> dauden <b>bateragarritasun arazoak</b> identifikatu eta neurriak hartu behar dira.</li> <li>→ <b>Biotopoko kudeaketa-plana garatu gabe dago.</b></li> <li>→ <b>Geoparkea natura helmuga eta turismo jasangarri baten eredu bihurtzeko estrategia</b> garatu beharko litzateke.</li> <li>→ <b>Biztanleriaren ongizatea eta bizi-kalitatearen hobekuntza solidarioa</b> sustatuko duen programa baten beharra dago.</li> <li>→ <b>Arau Ordezkatzaileek herriko beste naturaguneen definizioan eta babesean sakontasunik ez dute, paisaiaren kontzeptua landu</b> beharko litzateke, eta ibaiertzetako eta erreka ertzetako landaredia eta basoak berreskuratzeke ekintzak jaso.</li> <li>→ <b>Talaimendi eta Narrondoko erriberako urmaela antolatzeko, arautzeko eta berreskuratzeke moduak aztertu</b> gabe daude.</li> <li>→ <b>Bioaniztasuna eta paisaia babesteko eta udalerriko gune eta elementu esanguratsuenak ezagutarazteke ekintza-planik ez dago.</b></li> <li>→ <b>Udal-kudeaketan iraunkortasun-irizpideak txertatu</b> gabe daude</li> </ul>

## Lurralde-antolamendua eta ingurumena\_aurre Diagnostikoa

	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
kutsadura	<ul style="list-style-type: none"> <li>→ <b>Soinu-kutsaduraren inguruko diagnostikoa egin dute ikastetxeek</b>, Agendaz1ean.</li> <li>→ <b>Taberna batzuetan soinu-neurtzaileak</b> ezarri dira, zarataren inguruko informazioa jaso eta egoera hobeto kudeatzeko.</li> <li>→ <b>Zarata aztertzeko mapa akustikoa garatu da</b>, ordenantzan gehitzeko zain.</li> <li>→ <b>Industria batzuk herrigunetik atera</b> dira, eta <b>beste batzuei kontrol-arau zorrotzagoak</b> ezarri zaizkie.</li> <li>→ <b>Araztegia martxan jartzeak hobekuntza</b> nabaria ekarri dio <b>ibaiko ur-kalitateari</b>.</li> <li>→ <b>Industrietako kutsadura-isurketen azterketa egin da</b>, <b>ur-kutsadura murriztea</b> lortuz.</li> <li>→ <b>Kontsumorako uraren osasun kalifikazioa 3-koa</b> zen 2013an, Urola Kostako gainerako udal guztietan bezala.</li> <li>→ <b>Airearen kalitatea ona</b> edo onargarria izan zen <b>urteko egun guztietan</b>.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>→ <b>Soinu-kutsadura arautzeko eta soinu-neurtzaileek erabilera arautzeko ordenantzarik ez dago</b>.</li> <li>→ <b>Saneamendu-sarea bukatu gabe</b> dago.</li> <li>→ <b>Energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna bilatzeko neurririk ez da hartu</b>.</li> <li>→ <b>Ur-isurketa guztiak ez dira</b> behar bezala <b>kontrolatzen</b>, eta hobetzeko eremua da.</li> <li>→ <b>Eskualdeko kontsumo elektriko altuenetakoa</b> du Zumaiak.</li> </ul>
hondakinak	<ul style="list-style-type: none"> <li>→ <b>Hondakinak biltzeko sistema aldatzeko erabakia adostu du</b> Udalak.</li> <li>→ <b>Auzo-konposta</b> egiteko bitartekoak jarri ditu Udalak, eta <b>gero eta familia gehiagok</b> egiten dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>→ Hondakinen bilketarako sistemari dagokionean, alderdi politikoen, plataformen eta natur taldeen arteko <b>akordioa sinatu</b> bazen ere, <b>ez da indarrean jarri, ezta bideragarritasun-plana egin</b> ere.</li> </ul>